

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko irailaren 13a

*



Zugarramurdiko panpin sorginduak

■ Igandean amaituko da Zugarramurdin Kilimiliklik txotxongilo taldearen udako denboraldia. Uztailaren 15etik ia egunero taularatu dute *Sorginak* ikuskizuna, iaz bezala. Bertan, izenak argi azaltzen duen bezala, sorginak eta gure mitologiako hamaika pertsonaia dira protagonista. Izan

ere, ezin daiteke bestela izan, Sorginen Lezeek sorginen herri bihurtu baitute Zugarramurdi. Estefania Erro eta Iñigo eta Joxe Arburua lehen-gusuak Kilimiliklik taldeari eta euren lanari buruz mintzatu dira gurekin. *Sorginak* sortu eta urtebetera pozik dira egindakoarekin. ■

Bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Gai zerrenda ahitua omen zuen, eta, behin eta berriz gai berberen inguruan ez ibiltzeagatik, adio egin dio zutabe honi. Zirt edo zart egin du; erabakia atzerazina dela dirudi. Agortuxea zegoela esan du: ez naiz oroitzen agortua, nekatua edo nazkatua idatzirik utzi ote duen bere azken *hondarrekoa*-n. Gainera, inork ez zion komentariarik egiten bere izkribuez. Puntu horretara ailegatuta, zerna hi une kaxkar batek edonor bultzatzen toaile botatzera. Adioa ematean, esate batera, berak mundu honetan duen adixkiderik kuttunena, Lankratx izenekoa, zurrungaka ari zen bitartean, Berakoarenganako adeitasunik bat ere erakutsi gabe. Ero purtzil hori! Berandu banabil ere, ni naiz Kapiro gogoz irakurtzen nionetako bat. Eta behin bakarrik ez, birritan eta hiruretan ere ikusi dut neure begiak haren lerro jorietan sartzen. Maiz ordea, ez dut azken azpilduraino iristerik lortu, pare bat zentramina beharko hartarako! Zutabe sail honek arista on bat galdu du, sendoa eta hauskorra; beti ere egileak era dotorean pa-

Arista galduaz eta bestez

ratua. Ez dakit zer gertatuko zaien gainerako kideei, baina niri, behintzat, abandonatu berri duenaren sentsazioak datozkit txanda heltzen zaidanean: ideia hauxe ez ote dut beste behin ere joratu?; zer dela eta hontaz eta hartaz idatzi beharra?; zenbatgarren bider ez ote naiz tema honen inguruan tematu?... Halako galderak egin orduko, gainbehera zozazela nabaritzen hasten zara, abandonatzeko ordua heldu den seinalea. Eta hori hala bada, eta zinez hola dela, zerk behartzen nau orduan idazten segitzera? Ez naiz ezkututuko: banitatea da, irakurlearen aurrean agertzeak omen dakarren ponperia hutsa. Hala gauzak, Kapiroren bide bera hartu beharrean —akaso zentzuzkoena izango litzatekeena—, bera baino banidosoagoa izateagatik edo, hemen nauzu, hitzekin oraindik borrokan segitzeko prest. Bale, zerrendatxo egingo dut zutabe honetarako hauta nitzakeen egungo gai batzuk azaletik aipatuz: a) bakazioak amaitu direla eta nork bere zereginari ekin behar dienezkoa. Puff!, kontu hau baino zera asper-

garriagorik bada sasoi honetan? Baietz uste dut, datorrena, alegia; b) Probitziako Gobernuaren osaketa. Hirukoak bereak egin ditu eta, aurrerantza emana genuen urrats laburrak ere bai; c) Korporazio Sozialistaren azken jukutria. Militanterik ondratuenek ere burua makurtu dute lotsagabeki; d) Estefaniaren senar mihianiztunaren komeriak. Gaiak badu bere grazia, hala ere, friboloegia egunkari honentzat; e) Euskal Herriko egoera politiko eta soziala. Mingarria da benetan, delirantea; iraularazten ez badugu, eztanda egingo dugu aurki. f) Iruñeko Alde Zaharreko zoladuraren afera. Odo la ez da Argaraino ailegatuko, antza; g) Indurainen gora-beherak. Erresumak eman duen pertsonaiarik entzutetsuena gorriak ari omen da pasatzen. Eskerrak badugula beste Miguel bat oinordeko lana ederki egingo duena, Miguel Corellakoa, Monakoko Lehendakari Berria... Gai-iturria agortu da, eta nire lerro-kadarako espazioa ere bai. Despedida ordua da: hurrengora arte. Baldin hurrengorik balego. X

* GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Lizarra: Carlos Mena kontratenoreak kontzertua eskainiko du gaur San Miguel elizan, ilunabarreko zortzietan. Lizarrako Antzinako Musika astearen barruan.

Elizondo: Mikel Laboa eta Ruper Ordorikaren eskutik kantaldia izanen da Elizondon hilaren 21ean, gaueko 10etan, herriko frontoian. Sarrerak mila pezeta (40 libera) balioko du.

ANTZERKIA

Zugarramurdi: Kilimilikik taldeak *Sorginak* izeneko ikuskaria taularatzen du egunero, hilaren 15a arte.

Iruñea: Gaiarre antzokiko konpainia iraunkorrek *El privilegio del tripartito* obra taularatuko du gaur eta bihar Gaiarre antzokian bertan, ilunabarreko zortzietatik aurrera.

ERAKUSKETAK

Barañain: Atlantako Joko Olimpikoei buruzko argazki erakusketa ikusgai izanen da herriko Kultur Aretoan. Asteartetik larunbatera arratsaldeko zazpietatik zortzi eta erdietara arte izanen da zabalik erakustaldia.

Iruñea: Gotorlekuko Labea aretoan *Formak* izeneko erakusketa ikusgai izanen da irailaren 29ra arte. Horretan, gaur egungo eskulturaren erakusgarri diren hainbat lan dira ikusgai.

Lizarra: Agustina Otero eta Leopoldo Ferranen muntaia azaroaren 17ra arte izanen da ikusgai Gustavo de Maeztu museoan.

Bertiz: Jauregian *Garaia Nafarroan* izeneko erakusketa zabalik izanen da hilaren 28ra arte. Jauregia egunero goizeko hamarretatik eguerdikoko ordu bata eta erdiak arte, eta arratsaldeko laurretatik zazpi eta erdiak arte izaten da zabalik.

IKASTAROAK

Iruñea: Glotodidaktika ikastaroa antolatuko du IKAK. Izena emateko epea irailaren 18an amaituko da. Informazio gehiago jasotzeko edota izena emateko dei 22 22 46 telefonora.

Berriozar: Artsaia taldeak rockaren teknika ikasteko gitarra ikastaroak antolatzen ditu. Informazio gehiago jasotzeko dei 30 33 57 telefonora.

Iruñea: Web orriak nola egiten diren ikasteko ikastaroa antolatuko du Nafarroako Internet Taldeak. Ikastaroak astelehenero goizez egiten dira taldearen egoitzan. Bost astelehenetan zehar ordu-beteko ikastaroa jasotzearen truke partehartzaileek 12.000 pezeta ordaindu beharko dituzte.

nafar kronika

Patxi Larrion

Argitxo itzal ez dadin

Paper hauek ateratzeko egin zen kanpainan ginen, ezaguna nuen, hobeiki esanda, banekien nor zen. Gurasoen elkarreko bilera zirudien Paz de Ziganda ikastolako bilera horretan, bi egitasmo mahai gainean, jadanik ikastola berria egiteko proiektua abiatua baitzen. Giro beroa batzar hartakoa, *urre bila* joateko hautua egina, lana zuten bidelaguna, zinez malkartsua aurrean zuten ibilbidea, gainera, oinez egin beharrekoa.


Oraindik, gogoan ditut bere hitzak, kazeta honen proiektua aurkeztu nuenean, «saia zaitzete elkarrekin lan egiten, herri honetan bikoiztasuna da minbizia». Egun, Jose Luis Gorostidik ikusi ahal izan zuenez, bi egitasmoak gauzaturik daude.

Herri honetan maiz askotan, premiak bultzaturik aukeratzen da lanbidea, anitzetan ertz ugari dituen lana. *Euskaraz bizi* proiektua mamitu zuena, irakaslea baino, kudeatzaile izan zen, eta neurri handi batean filosofoa, guregan predikamendu gutxi duen disziplina.

Osotasuna da euskal kazetaritzan hizpide dugun aferetako bat. Menturaz, bere eskutik martxan abiatu ziren proiektuak ikertzea osotasun horren auzia argitzeko tenorean lagungarria izan daiteke.

Emaitzak hor dira, eta kasu honetan, zilegia den kritika egitean, gauzapez batzuen inguruan egindako kritika behar du izan. Oparoa izaten baita errealtatearen gainean egindako gogoeta.

Zenbait pertsonak ordezkazekin dirudite. Erronkak merezi du. *Argitxo itzal ez dadin*.



Javier Chourraut
Iruñeko alkatea



Jose Mari
Athleticceko jokalaria

asteko pertsonaiak

■ Zapateria kaleko egunkari atzerakoiak astelehenean karrikaratutako berriaren arabera, Javier Chourraut, Iruñeko alkate jauna, sekulako aitzurra zeramala heldu zen joan den igandean Sadar futbol zelaiko agintarien palkora. Iruñeko hiru burguen batasunaren 573. urteurrena ospatzen zela eta, alkateak hamaiketako eta bazkaria izan zituen igande goizean, eta, antza denez, ekitaldi ofizialotan behar baino gehiago busti zuen zintzurra. Chourraut, dena dela, ez da nafar hiriburuko estreinako alkate ardozalea, jakina baita bere aurretik kargu berean aritutakoa behin baino gehiagotan kontent samar heltzen zela Udaleko batzordeetara. Zapateria kaleko egunkariak, alta, ez zuen inoiz horren berririk argitaratu. Zergatik ote?

■ Norgehiagokako 74. minutua zen. San Mamesko harmailetan urduritasuna nagusi zen. Bi minutu lehenago, Amelik, Rayo Vallecanoko jokalaria gola sartu zuen. Binako berdinketa ageri zen markagailuan, amaierarako ordu laurdena falta zen, eta Athleticcek, arbitroak Urrutia kanporatu eta gero, hamar gizon besterik ez zeuzkan. Jose Mari Osasunako jokalaria ohiak, alta, baloia sareetara bidali zuen. Hiru eta bi, Athletic irabazle. Lehoin beste bi golak Carlos Garciak eta Zigandak sartu zituzten, Osasunak aritutako jokalarizk hauek ere. Osasunak, berriz, plantilan bost aurrelari atzerritar dituela, Sadarren ez zuen golik sartu, eta huts eta bat galdu zuen Toledoren aurka.

ahaztu gabe!



MUSIKA IKUSKIZUNA

Iruñea: Zeanuri, Donostia, Bilbo eta Gasteiztik iragan ondoren Iruñera dator *Iparragirre* ikuskizun musikala. Ikuskizunak Jose Mari Iparragirre, Urretxun XIX. mendean jaioak gudari karlistaren bizitza, lana eta ibilerak kontatzen ditu bi ordu eta erditan. Zazpi zenbaki musikala ditu eta aktore, kantari eta musikariak barne, 300 lagunek hartuko dute parte. Muntai erraldoia izanen da. Zezenplazan hiru eszenatoki paratuko dira: batean Bilboko Orkestra Sinfonikoa eta Iruñeko Orfeoia kokatuko dira musika jotzeko eta koruak egiteko, eta beste bietan, Iparragirreren bizitzaren pasarte desberdinak antzeztuko dira. Iparragirrere karlista zela aintzat hartuz, Lehenengo Karlistadaren pasarteek ere izanen dute tarterik ikuskizunean: kanoi hotsak, zaldiak eta gudariak ez dira faltako XIX. mendeko moduan girotutako eszenatokian. Iparragirreren papera Gontzal Mendibil abeslari bizkaitarrari egokitu zaio, eta musikalean, besteak beste, gudari karlistak utzitako bederatzi abesti orjinal kantatuko ditu. *Iparragirre* gaueko hamarretan hasiko da eta sarrerak mila pezeta balio du.

adi!

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketarako.

Karrape Irratia FM 107,8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gaine*rik, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Garaioa

Aezkoako Eguna igandean

Herri bazkaria eta gazta lehiaketa egingen dituzte, jai giroko beste ekitaldien artean

Aezkoako Eguna ospatuko dute igandean Garaioan. Ekitaldiak, hala ere, joan den asteazkenean hasi ziren eta gaur eta bihar ere izanen da zer ikusi bailaran. Besteak beste, pilota partiduak eta hitzaldiak. Igandean, berriz, herri bazkaria egingen dute bailarako eguna ospatzeko.

Erredakzioa / Iruñea

AEZKOAKO EGUNA ospatuko dute igandean Garaioan. Ekitaldiak, goizeko hamarretan hasiko dira herrian. Ordu horretan, argi solnua joko dute Aurizberriko txistulariek eta bailarako akordeoi joleek. Ordu erdi beranduago, Irati eta Pirinio aldeko gazten lehiaketa zabalduko da. Ondoren, hamaikak puntuan, meza egingen dute eta Aezkoako abesbatzak hartuko du parte.

Herri kirolak ere bere tarteak izanen du Garaioan ospatuko den Aezkoako egunean. Ordu batetik laurden gutxitan izanen da eta agoiztarrek ariko dira aetzen kontra. Ondoren, Sakanako Zugaldak erakustaldia egingen du bertan bildutako guztien aurrean. Goiza guzian zehar, gainera, inguruko eta Euskal Herriko beste eskualdetako artisauak izanen dira Garaioan, euren lana eta produktuak erakutsi eta saltzeko. Garaioari buruzko erakusketa etnografikoa ere ikusgai izanen da herrian.

Ordu bi eta erdietan, herri bazkaria egingen dute Garaioan. Bazkalondan gazta txapelketa irabazleen izenak jakinaraziko dituzte antolatzaileek eta gero enkantean salduko dituzte gazta irabazleak. Giroa animatuko duenik ere ez da faltako Garaioan. Hor izanen da, besteak



Lehiaketako gazta irabazleak enkantean salduko dituzte bazkalondan.

ARTXIBOKOA

beste, Jarauta 69 txaranga eza-guna.

Arratsalde partean, seietan, haurrentzako antzerkia izanen da eta ordu erdi beranduago, Otsagabiako dantzariak euren ikuskizuna aurkeztuko dute Garaioan Aezkoako Eguna ospatzeko bildutako guztien aurrean. Azkenik, zazpi eta erdietatik aurrera eta eguneko ospakizunei amaiera emateko, Trakets taldearen eskutik dantzaldia izanen da.

Garaioan hitzaldia gaur • Aezkoako Eguna berez igandean os-

patuko badute ere, joan den asteazkenean hasi ziren egun honen inguruan prestatu ekitaldiak. Ariben, hain zuzen, hitzaldia eskaini zuen egun honetan Aitzpea Azkorbebeitia Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak Bernardo Atxagaren literatur munduari buruz. Atzo, berriz, Ariben bertan ere, Nafarroa garakideko dibergentzia politikoei buruz mintzatu zen Patxi Larrión historialaria. Gaurkoan ere izanen da zer entzun Garaioan. Aranzadi Zientzi Elkarteak kide den Fermin Leizaola Nafarroako horreoak buruz ariko da, gaue-

ko bederatzi eta erdietatik aurrera.

Bihar, bestalde, kirolak izanen du tarte bat Garaioan. Arratsaldeko zortzietan, eskuz binakako pilota partiduak izanen dira. Aezkoako pilotariak inguruko besteen aurka ariko dira, haurrak eta gaztetxoak. Goizaldeko ordu batetan, berriz, gaupasa hasiko da Trikimailu taldearen eskutik.

Bestetik, Aezkoako Eguna ezezik, Eguesibarrekua Olatzen eta Etxauri Ibarrekua Belaskoainen ospatuko dituztela igandean ere aipatu beharra dago. X

Etxauri

Zaldiz ibiltzeko irteerak eta ikastaroak, oso merke

Bildutako dirutza Chiapasera bidaliko dute

Erredakzioa / Iruñea

BIHARTIK aurrera Etxauri inguruan trostan ibiltzeko aukera izango duzu, merke-merke gainera. IXIM Chiapasetik Elkartasun Batzordeak zaldiz ibiltzeko irteerak eta ikastaroak antolatu ditu, zapatistentzat dirua biltzeko asmoz. Orduko 800 pezeta kostatzen da, eta izena emateko Iruñeko Auzozarra tabernara deitu behar duzu (Descalzos kalea, 71. zenbakia, 210065 telefonoa). Eskaintzak hilabete inguru iraungo du.

Aukera desberdinak dituzu:

zaldiz ibiltzen ikasteko ikastaroak, ordu batzuetako edo egun osoko irteerak edo, nahikoa denbora izanez gero, zenbait egunetako zeharkaldiak Urbasa eta Andiako mendizerran. Apropo, taldeentzat (zortzi-hamar lagun gehienera), eta haurrentzat ere badira pottokak.

Irteerak Etxauritik dira. Han inguruan kanpindendak jartzeko eta su egiteko tokia, gurdia, edariak... denetarik daukate. Era guztietako proposamenak onartzen dira, baina egun batzuk lehenago deitzea komeni da dena behar bezala antolatzeko. X



Irteera eta ibilaldietan ateratako dirua Chiapasera bidaliko dute.

ANA UNANUE

Bera

Euskal Herriko artisten akuarelak ikusgai Kultur Etxean

Irailaren 22ra arte egonen da zabalik erakusketa

Jon Abril / Bera

JOAN DEN LARUNBATEAN zabaldu zen Berako Kultur Etxean Euskal Herriko akuarelistak erakusketa eta irailaren 22ra bitartean izanen da zabalik, egunero-egunero arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara. 29 pintoreen 97 lan bildu dira Berako Gure Txokoa elkarteak eta Urruñako Selaruak antolaturiko erakusketan. 1990. urtean Urruñak eta Berak eduki zuten harremanaren ondorio da erakusketa hau. 1993an Iparraldeko hainbat margolari biltzen dituen Selaruak elkarteak proposamena luzatu zion Gure Txokoari, eta orduz geroztik urtero-urtero antolatzen dituzte bi erakusketa urtean zehar. Hiru urteotan Urruñan egin dira bilketak, maiatzean Udaberri erakusketa bidez eta iraila aldean egiten den akuarelistenarekin. Aurten, ordea, Beran egin da lehendabizikoz.

Erakusketan parte hartzen duten margolari gehienak Iparraldekoak dira, 23 hain justu. Beste seiak Hegoaldeko hainbat herritakoak dira. Honen badu arrazoirik antolatzaleen iritziz: «Hegoaldean, eta are gehiago Bidasoaldean, ohitura handiagoa da olioak margotzeko. Hegoaldean gutxi erabilitako teknika da akuarela», aipatu du Silvia Maziziorrek.

Izen handiak urriak dira erakusketan, «erakusketa herrikoia egin nahi dugulako, denontzako zabalik dagoena», erantsi du Maziziorrek. Hala ere, erakusketaren ardatz Gelos pintorearen zenbait lan ikus eta eros daitezke Berako erakusketan. Gelosen garrantzia ia erabatekoa da antolakuntzan.

Erakusketaren helburua, izenburuak berak dioen bezala, Euskal Herriko akuarelistak biltzea da. «Haratago ere joan nahi dugu. Bera eta Urruñak hain hurbil egonik ere, harremanak nahiko eskasak izaten dira urtean zehar. Ezartzen zaigun muga apurtzeko balio dezala nahi dugu», argitu du Maziziorrek. Bi helburuak era ezberdinean betetzen direla gaineratu du: «Akuarelista gehienak Iparraldekoak dira. Hori ez dago gaizki, baina Hegoaldeko gehiago nahi genituzke. Bigarren helburua guztiz betetzen dela uste dut, honen inguruan mugitzen den jende guztiak harremanak baititu, bai antolatzaileak baita margolariak ere. Gainera, inoiz lortu ez zena ere erdietsi dugu, Berako eta Urruñako udalek harremanak edukitzea, instituzionalki». X

Kilimiliklik taldearen Sorginak
Zugarramurdin

Kilimiliklik urtebete 'Sorginak' antzezten

Zugarramurdiko ikuskizunarekin segitu eta bide berriak jorratu nahi dituzte taldekideek

Zugarramurdi sorginen herria dela ez du inork zalantzan jartzen. Kilimiliklik bertako txotxongilo taldeak ere sorginak hartu ditu gaitzat jada urtebete abian daraman izen bereko ikuskizunean. Inigo eta Joxe Arburua lehengusuak eta Estefania eta Jose Luis Erro anai-arrebak, baina, hasi dira proiektu berriak prestatzen.

Edurne Elizondo / Zugarramurdi

SORGINEN LEZEAK sorginen herri bihurtu dute Zugarramurdi. Infernuko Errekak berak bustitzen ditu bertako bazterrak. Herriko seme eta alabak sorginen inguruko hamaika istorio entzunda hazi dira urteetan, eta beste herri eta eskualdeetatik ere hurbiltzen dira sorginen arrastoaren bila.

Istorio eta kondairek hain itsusi azaldu dituzten sorginen historiak 1610. urtean du hasiera, Logroñoako auzitegiko Juan del Valle Alvarado jaun inkisidorea Zugarramurdira allegatu zen urtean alegia. Herrian hainbat hilabete gelditu eta 300 lagun inguru auzipetu zituen, sorginkeriaz akusaturik. Urte bereko azaroaren 7 eta 8an jakin zuten herriko *sorginek* euren epaia: absoluzioa batzuentzat, sua besteentzat, kartzela eta erbestea askorentzat. Halaxe agertzen da kobazuloko sarreran zintzilikatuta dagoen idatzian.

1610. urteko gertakizun horiek, sorginak eta gure herriko mitologia, oro har, dira herrian orain lau urte sortu zen Kilimiliklik txotxongilo taldearen proiektuaren oinarri. Horren atzean, lau izen: Inigo eta Joxe Arburua lehengusuak, eta Estefania eta Juan Luis Erro neba-arrebak. Badago Kilimiliklik beste izen funtsezko eta garrantzitsua, Mikel Diez, 28 urte zituela zendua. Haren omenez egin ziren lehen txotxongilo topaketak joan den apirillean, Zugarramurdin bertan.

Kilimiliklik sortu aurretik, hainbat talde eta proiektutan (Kukubiltxo eta Frantziako iparraldeko Charleville-Meziere Nazioarteko Txotxongilo Eskolan, besteak beste) egin zuten bat Estefania Erro eta Mikel Diezek, eta Zugarramurdin bizitzen jarri zirenean gauzatu ahal izan zuten aurretik buruan ibilitako ideia, euren obra sortzea, alegia.


«Obra egonkorra izan nahi zuenak, baina, antzerki egonkor bilakatu zen, azkenean», azaldu digu Estefania Erro taldekideak. Herriko garaje bat alokatu, moldatu eta bi taldekide berri bilatu zituzten herrian: Inigo eta Joxe Arburua. «Proposatu bezain pronto balez erran genien. Txotxongiloekin ez genuen inoiz lan egin, eta antzerkiaren munduan ere San Joan gaurean aurreko asteburuko gaupasan kobazuloan herritarren artean egiten den antzezpena zen genuen esperientzia bakarra», gogoratu dute Arburuatarrak. Esperientzia eza, baina, ez zen oztopo izan, eta lan egiteko zuten gogoak laster eman zituen lehen fruituak.

Bi urte eman zituen Kilimiliklik

taldeak tokia moldatzen, obra prestatzen, gidoia idazten eta panpinak egiten. Denbora horren buruan, azkenik, 1995. urteko uztailaren 29an, Zugarramurdiko biztanleen aurrean estreinatu zuten *Sorginak* ikuskizuna. Orduz geroztik, udan egunero arratsaldeko seietan —gutxienez 12 laguneko taldea osatuz gero—, asteburuetan eta ikasturtean zehar ikastetxeetako haurrentzat hamaika txotxotako bisitarien aurrean aurkeztu dute obra. Joan den uztailaren 15ean hasi

Txikitandik sorginei buruz hamaika istorio entzun dituzte hementxo herritarrek. Istorio horietan sorginak itsusiak ziren beti, gaiztoak edo emagalduek. Gure asmoa horren zergatia bilatzea izan da. Eta konturatu gara horren oinarria ez dela bakarrik sorginen eta inkisidoreen aurkakotasuna, arrazoiaren mundu oso bat dago intuizioaren munduen kontra. Naturarekin lotura gehiago zuten bizitzeko modu ezberdina besterik ez zuten sorgin deitutako haiek, lurrari atxi-

da haurrekin edo helduekin lan egitea. Mota guztietako erreazioak izaten dituzte. Oro har, hala ere, asko hitz egiten dutela erran beharra dago», dio Errok. «Beldurra uxatzeko hitz egiten dute», gaineratu du Inigo Arburua, «behin, eserleku berean agertu ziren bi neskatxa». «Inkizizioaren tramankuloak agertzen diren zatia da haurrak gehien beldurtzen dituen», azaldu du bere lehengusuak. Helduei dagokienez, «gehienak txundituta gelditzen dira, txotxongiloak ba-



zuten aurtengo udako denboraldia eta igande honetan amaituko da.

Goma-aparrezko txotxongiloak • Aurtengo uda aurrekoa bezain oparoa izan ez bada ere —askoz jende gutiago ibili da, eguraldiak lagundu ez duelako agian—, azaldu du Estefania Erro—, Kilimiliklikeko panpinek ez dute huts egin mitologiako pertsonaien mundua eta Zugarramurdi bera islatzen dituen eszenatokiak: Mari, Erio, deabrua, Sorgin eta lamia eszenatokiak behealdeko azpimunduan; apeza, gizona eta emakumea gainekoan.

«Zugarramurdik, lekuak berak ezarri digu gaia», azpimarratu dute Kilimiliklikeko partaideak. «Hemen egonik ezin genuen besterik egin. Kobazuloak bezala, herriaren beste osagai bat dira gure antzerkia eta gure obra.



kituagoa» azaldu du Estefania Erro.

1610. urteko sorginak ez bezala, goma-aparra eta latex-aparra dira Kilimiliklik taldeak egin txotxongiloen osagai nagusiak. Egurra eta oihala ere erabili dute. Gainera, panpinei bizitasun gehiago emateko —eta edeki lortu dutela erran beharra dago— urruneko kontrola erabili dute horietako batzuen begiak, adibidez, mugitzeko. Halaber, dekoratua poliuretanoarekin egin dute batez ere, baina erabili dute zuntz optikoa ere, dekoratua diren izarrak egiteko besteak beste.

Hala bada, helburua erabat bete dute Kilimiliklik taldeko kideak. «Ikuskizunak ikusleen arreta bereganatzen du irauten duen hiru ordu laurdenetan». Publikoaren erantzuna, baina, ez da beti berdina. «Oso ezberdina

karrik dituen antzezpena aspergarria izan den delatek uste dutelako ikusi aurretik, eta ez da hala», dio Estefania Erro.

Joan den uztailaz geroztik antzeztu duten ikuskizunarekin aurrera jarraitzeko asmo tinkoa badute ere —pozik gara lortu dugunarekin— proiektu berrietan murgiltzeko aukera ere aztertzen ari dira Kilimiliklikeko kideak. «Nagun hemendik kandaibidez, mugitzeko. Halaber, dekoratua poliuretanoarekin egin dute batez ere, baina erabili dute zuntz optikoa ere, dekoratua diren izarrak egiteko besteak beste. Ados dira Estefania eta Joxe ere. «Lan egiteko bi era ezberdin dira, antzerki egonkorra izatea edo zure obrarekin herriz herri ibiltzea. Bata galduta gabe, bestea ere probatu nahi dugu», gaineratu dute.



Kilimiliklik taldearen Sorginak
Zugarramurdin



Zugarramurdiko sorginak eta mitologiako pertsonaiak dira *Sorginak* ikuskizuneko protagonistak. Panpinak egiteko goma-aparra eta latex-aparra erabili dute Kilimiliklik taldekideek.

MANU MUJICA

Berriro topaketak egiteko prest

JOAN DEN Aste Santuan, apirilaren 20 eta 21ean zehazki, lehen txotxongilo topaketak egin zituzten Zugarramurdin, 28 urterekin zendu zen Mikel Diez Kilimiliklik taldeko kide zenaren omenez. Bergarako Taun Taun taldeak Euskal Herri osoa la txotxongilo talde guztiak —bakan batzuk ezin izan zuten— bildu zituen Zugarramurdin, Kilimiliklik anfitrioren alboan. Bi egunetan antzerki erraldoi bihurtu ziren sorginen herriko kaleak txotxongilo taldeen maratoi handian. Panpinez lepo bete zen Zugarramurdi.

Oso garrantzitsua izan zen Kilimiliklik taldeko kideentzat Euskal Herri osoa lankideen elkartasuna hain gertutik jasotzea. Mikel Diez omendu

nahi zutelako eta profesional mailan ere lorpen inportantea izan zelako. «Oso inportantea izan zen guztiak elkarrekin egon ahal izatea. Hamaika ikuskizun ikusteko eta gozatzeko aukera izan genuen, horietako batzuk Zugarramurdin aurkezteko propio prestatuak». Hain esperientzia ona izan zen, ezen berriro ere egiteko prest diren talde guztiak. «Asmo hori daukagu, bai, baina oraindik ez dakigu urtero edo bi urtean behin egiten dugun», aipatu du Estefania Erro taldekideak. Kilimiliklik taldeko kide guztiak herri berriro noiz bete zain dira dagoeneko. Eta apirillean egindako lehendabizikoetan bezala, zalantzarik gabe, Mikel Diez taldekidearen orotzapena izanen

da nagusi hemendik aurrera Zugarramurdin egiten diren topaketak. «Oso inportantea izan zen guztiak elkarrekin egon ahal izatea. Hamaika ikuskizun ikusteko eta gozatzeko aukera izan genuen, horietako batzuk Zugarramurdin aurkezteko propio prestatuak». Hain esperientzia ona izan zen, ezen berriro ere egiteko prest diren talde guztiak. «Asmo hori daukagu, bai, baina oraindik ez dakigu urtero edo bi urtean behin egiten dugun», aipatu du Estefania Erro taldekideak. Kilimiliklik taldeko kide guztiak herri berriro noiz bete zain dira dagoeneko. Eta apirillean egindako lehendabizikoetan bezala, zalantzarik gabe, Mikel Diez taldekidearen orotzapena izanen

Bestalde, Lelioako Fakultatean Arte Ederretan lizentziatu zen. Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren beka bana jaso zuen 1990ean eta urtebetez aritu zen Alain Werginek gidatzen duen Mines de Rien Mugerreko taldearekin. Hurrengo urtean txotxongiloak

egiteko teknika ikasi zuen Charleville-Meziere Nazioarteko Txotxongilo Eskolan. 1993an ere Philippe Gentyren konpainiaren laguntzaile izan zen hainbat lanetan.

Telebista kate ezberdinetarako ere lan egin zuen, horien artean ETBko *Txokolatex* lanean hartu zuen parte. Hainbat herritan ikastaro ugari eskaini zituen, besteak beste, Barakaldon, Bermeon, Erandion, Lekeition, Elizondon, Iruñean eta Zugarramurdin bertan. Hor, Estefania Errorekin batera, Euskal Herriko lehen txotxongilo areto egonkorra sortu zuen herriko garaje batean. Kilimiliklik taldeak bertan eskaintzen duen *Sorginak* obra ere biek elkarrekin asmatu eta idatzitakoa da. X

Xanti Begiristain

Zentzugabekeriaren aginpidea

■ Gizonkeriak biziki indartsu dirau oraindik pertsona askorengan eta aukerarik txikienean ez-tanda egiten du. Horietan dira nire ustez, hain zuzen ere, uda honetan Irun eta Hondarribiko jailetako alarde militarretan gertatu diren adibide garbiak.

Deus baino lehen esan nahi dut, ni ez naizela batere horrelako handikeria militarren aldekoa, barruan beraiekin daramaten azpiesanahiagatik, batez ere intsumisioaren aldeko garai nabarmen honetan. Era berean ere, egia da ni ez naizela herri horietakoa, eta normala iruditzen zait ez sentitzea hangoez bezala; ulertzen dut Irun eta Hondarribikoa izanik beste modu batez ikusiko direla mota horretako desfileak.

Baina beno, bi herri horietan uda honetan gertatu diren istilu eta gatazken gaiari helduz, adierazi behar dut nik arazo horietan guztietan ikusi dudala gizonkeria, emakumeria, matxismo, intolerantzia eta ohikeriaren dosi arrunt handia. Eta gauzak garbiago uztearren, esan behar dut

Gaur egun, XXI. mendearen atarian gaudenean, pentsatzen dut ukazina dela emakumeek duten berdintasunerako eskubide unibertsala. Aurka-koa defendatu nahi izatea zentzugabekeria hutsa iruditzen zait.

Gizarteak aurrera egin dezan ezinbestekoa da hainbat gauza eta egitura aldatzea, botatzea eta suntsitzea. Bestela, dena egonkor eta mugiezin legoke.

Pentsa dezagun une batzuetan nola joka genezakeen, esate baterako, emakumeek boto emateko eskubidearen aurka, bakar-bakarrik garai jakin batera arte, horixe zelako ohitura. Edo, era berean, elbarriek, atzeratu psikikoek, itsuek, gorrek eta abar, nor ausartuko ote litzateke esatera, denbora batean bezalaxe, etxean eta zokoratuak egon behar dutela usadioaren izenean? Edo, nork esango luke 1996an legendardunak urrutitatuak eduki behar direla? Beno ba, niretzat zentzu beretsua dauka alarde horietan esateak emakumezkoek sukaldian sartuta aritu behar dutela, eta bestela



jokabide desegoki hori nabaritu ahal izan dudala emakumeek desfileetan eskuhartzearen aurka jokatu dutenengan. Are gehiago oraindik, ni ausartzen naiz esatera emakume kementsu horien kontra eman diren argudioen artean ez dudala bakar bat ere aurkitu funtsik duenik. Alderantziz bai ordea pisurik gabekoak, arinkieriaz emandakoak, eta kasu ugarietan bortitzak, zakarrak eta gizatasunik bakoak anitz.

Besteak beste, honako arrazonamendu hauexek dira nik entzun ditudanak, hainbat komunikabidetan, justifikatzeko aurkakoen jokamoldea, alegia, beti emakumeen partehartzerik gabe egin direla, ohiturak eta usadioak mantendu behar direla, tradizioaren arabera jarraitu beharra dagoela eta abar. Hitz batez, deus ere alda ez dadila. Beraz, nire iritzia apalean, arrazoiei dagokienez, hutsaren hurrengoak, ezgauzak...!

urdanga, emagaldutako edo antzeko zerbait direla.

Argi dago emakumezkoek lortu beharreko berdintasun, askapen eta emantzipazio guztiak, zorritzarrez, beraiek eskuratu beharko dituztela pulstuz, gizarte honetan zapalduta dagoen beste edozein kolektibok bezalaxe. Beti aurkituko dituzte salbuespenak, baina gehienetan gutxiegi izanen dira.

Gizonezko askok oraindik oso gogoko du kanpoan itxura ona ematea, esaterako, elkarte gastronomikoetan otorduak prestatzen, baina ez horrela etxean laguntzen, edota elkarte horietan emakumeek eskubide berberak izan ditzaten.

Gizonezko horien aurrean nik inoren latsa sentitzen dut.

Noiz arte mantenduko ote dugu bizirik gizarte honetan esaera zahar hori: «Kanpoan uso eta etxean otso»? ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Emaztekien segida
eta XIII: Perpetua
Saragueta
mezkiriztarraz

■ Zentronikon Txibite, Ablitassen Arriazu, Leitza Zabaleta, eta Arbizun Razkin nahiz Mendinueta. Etxeberría Arronizen, Zabaltza Orbaiztan, Galartza Urdiainen eta Amatriain Andosillan. Hala omen da hemen. Nafar klan delakoak feudo mugatueta murgiltzen bide dira, konsanginitatea erruz sortzen da zehazki. Eta Mezkitzen Saragueta nagusi. Saraguetarrak izan dira kutxetagleak, eta Saragueta Saragueta Mezkitzko emakumea: «1905eko dagonilaren iruan, goizeko sei etan sortu nitze, ogei egun leixago amak eror aldi bat ederra artu zuelako. Nere amaxik erraten zue nitzala luze eta mear, eta nik erraten dut, mundu guztian bear. Egun bat iruzkiz bete zela, eta ni sortu nitzen etxea ordu berean artu zuela. Ala ba ni sortu nitze Mezkitzko barride batean Txorondo deitzen den Arakiñearen. Nere amaxin aita eta ama orduko aspaldik ilak, zire arakiñak. Sortu ta biaramonean bateiatzen ze aurr. Niri ala egin zirate, eta zarrena nitzen bazala, bateioko aietxi eta amaxiak izan zire, nere aietin aite eta amaren ama. Elizan bateiatzeko tenorla etorri zelaik, iakin gabe niorek ze izan behar ziren apezak. Etorri zenean denbora ala erran omen ziote: gaur dagonilaren laua, gaur badugu gizon izen anitz, baño andre batena bakarrik eta izen ori eman zaio, Perpetua da eta ori da eraman bear duena».

Amaren aldeko askazi batekin Baztango Arizkuneko zegoela bere senarra izanen zena ezagutu zuen. Trinidad Urtasun Marturet bertsolari iruritarrekin ezteia 1931.eko uztailaren 22an ospatu zen, eta segituan Baztan ballera joan zitzaigun bizitzera, alabaina 1944.az geroztik Iruñeko Karlos III. karrikan bizi izan dira, sei alaben guraso. Trini 1978.eko uztailaren 29an zendu zen. Bertsolari bezala oso ezaguna suertatu zen gerra aurreko garaian, baina egun arras bertso gutxi iritsi zaizkigu. Antonio Zabalak Tolosako Auspoa bilduman Bidasoa aldeko bost bertsolari izenburupean agertu liburuan bost bertso baizik ez zuen eman, haletarik bat jarraian datorren Bozateko ijiteoz honako hau:

«Kantu lanian edo bertsotan / Abiatzen naiz esaten / Gan den igande-arratsaldian / Zer gertatu den Bozaten / Gañera bere sozio lagunek / Ere jakindu dezaten / Alaja txarrak gauza onikan / Sekula ez baitu izaten.

Barrio hontan ahaztuta dugu / Melillan daukagun gerra / Eguna orretan toki ontan ere / Bagenduan eta ederra / Gizon eta andre naste zabiltzan / nola aunita eta akerra / Ezta txikia Frantzisko ijituari / egin dioten okerra.

Ni neretako entzun dudanez / Beltzara dauka izena / Projimuari ondo obratzeko / Kara beltzoko gizona / Mariano txar bere suia da / Berakin sozio dena / Bere aitari ez diote egin / Oso azio zuzena.

Batek esan dit ni egondu nitzan / Leto zulotik betiraka / Parte batetik parragarria zen / zerabilleten zaraka / Gizona oiek beren nabalak / Elkarrengana jiraka / Eta atsuak berriz elkarri / Tutututikan tiraka».

Zabalarenaz gainera, Perpetua beraren testigantza badugu irakusgai, Jose Maria Satrustegik Fontes Linguae Vasconum aldizkariako apallatu artikulu batetan: «Nere senarra bertsolaria ze eta orai ere, bere gabotasun guztiaikin aski aise bertsolaikin ateratzen da. Nere aitaik maite zuen nere senarra, baño baztandarrik ez. Erraten zue: Baztandar tuku tuku, kolkoan mile marrakuku. Ezkondu gñelak bere paperetan trakurri nitue bertso aln zakarrak neskaxendako eta erran nako: Nahi ziñuke zure alabendako norbaitek ori egitea? Erre egin nitue. Nik ez nue alako gauzaik eta ez nue utzi ere olakolk egitera». Iruritarak Beltranean 1894.eko apirilaren 24an sortu zen Trinidad Urtasun, lanbidez okina genuen, eta bertsolaria ez ezik, zituen xebekekeriengatik hagitz ezaguna bagenuen: «Behin bates paratu zitue bi banabarra dirlinden, eta erran zioten 36ean, eia zer erran nahi zuen arek: Irrakurri zak! Biba nabarra!». ■



Iruñeko Hiria xake torneo itxiko bosgarren jardunaldiko partida, 1995eko abenduaren 31n jokatu.

Roman Slobodjan (Alemania), 2.500 ELOkoa — Julio Granda (Peru), 2.605 ELOkoa.

1.e4,c5; 2.Zf3,Zc6; 3.d4,d4; 4.Zd4,Zf6; 5.Zc3,d6; 6.Ae2,e5; 7.Zf3,h6; 8.0-0,Ae7; 9.Ge1,0-0; 10.h3,Ae6; 11.Af1,Db8; 12.Zd5,b5; 13.a4,b4. Aurrerapen hau kaltegarria gertatuko zaie. Ez dago ondo neurtuta.

14.Ab5,Ad5; 15.d5,Za5; 16.Zd4,a6; 17.Ad3,Ge8; 18.Zf5,Af8; 19.Df3,Dd8; 20.Ad2,Zb7.

Dama lotua dago zh6 xa: arriskuaren aurrean. Hortik, peoiaren galera.

21.Ab4,g6; 22.Zg3,Zd7; 23.De2,Dh4; 24.Aa3,bZ-c5; 25.Ze4,Ze4; 26.De4,De4; 27.Ae4,eG-c8; 28.c3,a5; 29.Ad3,Zb6; 30.Ab5,aG-b8; 31.eG-d1,Zc4; 32.b4,Ga8;

33.Ac1,Ga7; 34.Gb1,Eg7; 35.Ef1,Ae7; 36.Ee2,Af6; 37.Ac6,e4; 38.Gb3,Gb8; 39.Ab5,Gc7; 40.Af4,g5; 41.Ag3.

Ikus koadroa. Alfilak peoi defenditu beharrak 'Gd4' ahalbidetzen du. Beltzek aurreranzko ihesbidea aukeratu dute.

41.....Gb5; 42.b5,a4; 43.bG-b1,a3. 'Ac3' jokaldiak ez zuen balio (44.dG-c1,Ae5; 45.Ae5,e5; 46.Ga1,a3; 47.Ga3). 44.dG-c1,Gb7; 45.f3,f3 xa; 46.f3,Gb5; 47.Ed3,Zb2 xa; 48.Ec2,Zc4; 49.Ae1,Gd5; 50.Eb3,Ze3; 51.Ea3,Gd3; 52.b5,Zc4 xa; 53.Eb3,Za5 xa; 54.Eb4,Zb7; 55.c4,Gf3; 56.Gb3,Gf1; 57.Af2,Gf2; 58.Ae3,Gh2; 59.Ag1,Gh1; 60.b6,Gg1; 61.Gg1,Ad4; 62.Gd1,Ab6 (jokaldi ezkutua); 63.Ec3,Aa5 xa; 64.Ec2,Zc5; 65.Gf3,Zb7; 66.Ga3.

Beltzen porrota. Partidaren jarraipenean zuriek jokaldi zehatzak aurkitu zituzten, oso zaila ez bazegoen ere.



Itzulera gozoa

Ikastetxearen egoitza berrian hasi dute aurtengo ikasturtea Berako Labiaga ikastolako neska-mutilek

Astehenean hasi zen ikasturte berriarekin batera, egoitza berria estreinatu dute Berako Labiaga ikastolan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren (DBH) ezarpenarekin, txikiagi gelditu zen orain arteko egoitza eta eskolaurreko egoitzak behin-behineko baimena baino ez zuen. Eraikin berriak leku arazoak saihestea eta eskolaurrea legeztatzea ekarri du. Hala ere, DBH legeztatzeke dituzte arazoak.

Jon Abril / Bera

ASTELEHENEAN martxan jarri zen ikastolaren egoitza berrian Eskolaurreko eta Lehen Hezkuntzako ikasleak ariko dira. Aurtun, eta kontuan hartuz oraindik DBHko laugarren maila ez dela ezarri, Lehen Hezkuntzako lehenengo lau kurtsoak baino ez dira egongo egoitza berrian, beste biak Altxateko egoitzan egongo baitira.

Ikastola berria bi solairuko eraikin modernoa da. Lehenengo solairuan, jantokia, sukaldea, administrazioa, gimnasioa, duxak, balio anitzeko gelak eta berogailu eta argindar gelak daude. Goiko solairuan, berriz, ikasgelak, komunak eta gela osagarriak daude. Guztira, 1.000 metro ditu eraikinak.

Etxe berriak haurrengan eragin duen «ilusio, algara eta urduritasuna» azpimarratu ditu Erramun Martiarena Labiaga ikastolako zuzendariak. «Ikasle txikienentzat leku berria da ikastola, eta horrek hasieran urduritasuna ekarri arren, bigarren egunerako alaitasuna ekarri die. Kontuan hartu behar da, gainera, orain arte egon diren eraikina zaharra eta txikia zela». Baina haurrei leku berrira egokitzea erraztearren, lau gunetan banatu dute ikastolako goiko alde. Paretetako eta ateetako koloreak aldatuz doaz pasilotik pasilora, esparru txikiagoak sortzearen eta ikasle gaztetxoek gal ez daitezen. Kolore lasaigarriak dira denak. «Horia txikienentzat, berdea Lehen Hezkuntzako lehen bi ikasturteentzat, morea hurrengo bientzat eta izoki kolorea zaharrentzat. Pasilo bakoitzean bi gela daudenez, hezkuntza maila bakoitzean dauden tarteak ere mugatu ditugu. Bai barrukoentzat bai kanpokoentzat errazagoa da horrela», adierazi du Agustín Maritxalar irakasleak. Sarreretik dagokienez ere, ziklo bakoitzak berea du, eta beheko solairura jaisteko hiru eskailera dago. «Segurtasun neurri guztiak kontuan hartu ditugu: estintoreak, larrialdietarako irteerak, balkoia...», azaldu du Martiarenak.

Bisitatu izan ziren kurtso hasierarekin batera gurasoak, ikasle ohiak eta bazkideak. Jendaurreko inaugurazioa ikasturtean zehar egingo da, oraindik data zehatzik ez dagoen arren. Orain 23 urte ikastola sortu zenean ezagututako ikasgelekin konpa-

ratzen aritu ziren etengabe. «Batzuentzat handiegia irudi dezakeen arren, legearen arabera egindako eraikina da. Egun egiten den edozein ikastetxeri neurri hauek eta gela hauek guztiak eskatzen dizkionenez, hala egin dugu», argitu du Agustín Maritxalarrek.

Bigarren solairuaren atzealdean dago jolas-gunea. Aire librean dago zati nagusia, nahiz eta bi gune eduki aterpean. Patioaren erdian, frontoi txiki bat dago «Nafarroako mendialdeko eta Iparraldeko itxura duena», azpimarratu du Martiarenak. Izan ere, bertako arkitektura zaindu da eraikin osoan. Paisaia integraturik dago eta paretak zuriak eta berdeak erabili dira, inguruko zenbait etxeren antzera.

DBHren zain • Eskolaurrean eta Lehen Hezkuntzan ikasturtea hasi den arren, DBHkoek datoreen astelehenean ekingo diote kurtso berriari. Iazkoaren antzera, betebeharrak guztiak bete arren eta bere egunean eskaria egin arren, Nafarroako Gobernuak DBH emateko baimena ukatu zion ikastolari. «Gure proiektu pedagogikoan DBH ematea sartzen da eta horretarako Lesakako ikastolarekin elkartu ginen. Orain irakaslego eta eraikin aldetik eskatzen zaizkigunak betetzen ditugun arren, ez digute DBH legeztatzen», aipatu du Martiarenak. Nafarroako Gobernuak emandako ezezkoari errekursoa jarri zion ikastolak. «Egun, epaitegian dago kontua, kontentzioso administratiboa. Beste eskaera bat egin dugun arren, aurrekoaren eskubideei ere eutsi nahi diegu», gaineratu du Labiagako zuzendariak. Administrazioaren erantzuna noiz edukiko duten ez dakite ikastolako arduradunek, «ezta emango duen ere».

Hala ere, baikor ageri da, ez bakarrik ikastolako arduradunak, baita gurasoak ere. «Buru-belarri sarturik gabiltza gure proiektuan. Orain 23 urte landaturiko haziak bere zuhaitza badiela ikusi dugu. Ikastola garbitzen, muntatzen eta bestetan gogor aritu dira gurasoak udan», erantsi du Erramun Martiarenak.

Ikastolaren inguruan oraindik lanetan dabilta, belarra ereingo dute bertan, kanpoko txukuntze lanak ez baitira amaitu. Hala ere, barruan dena dago martxan.



Ikastolaren egoitza berriak ilusioa, algara eta urduritasuna eragin ditu haurrengan.

JON ABRIL

Aitzinera Bideosoan

ORAIN 23 URTE sortu zenean 18 haur inguru zituen ikastolak. Udaltzeko lehenengo solairuan egokitutako hiru gela izan ziren Labiaga ikastolaren lehen egoitza. Ondoren, orain arte Eskolaurrea egon den Lagun Etxean finkatu zen. Poliki-poliki ikastola handitzen joan zen neurrian, egoitza berri baten premia zegoen. Garai batean Maristen ikastetxea izan zena erosi eta 1983ko Nafarroa Oinez-en bildu zen diruarekin Altxateko ikastola errealtate bilakatu zen.

Euskal hizkuntzaren eta oro har herri kulturaren aldeko lana izan du xede Labiaga ikastolak hasiera-ha-

sieratik, «eta hori izaten jarraitzen du», erantsi du Erramun Martiarenak zuzendariak.

Baina LOGSE legearen ezarpenarekin, eta ondorioz derrigorrezko ikasketak bi urtez luzatzearekin, Altxateko egoitza txikiagi gelditu zen. Lesakako Tantiuramairu ikastolarekin DBH ezartzeko indarrak elkartu eta eraikin berria egiteari ekin zioten. 1994ko Nafarroa Oinez-en bildutakoarekin egoitza berria egiten hasi ziren, eta bi ikasturte geroago, egia bilakatu da ametsa.

Altxateko egoitzan ere aldaketa batzuk egin behar izan dituzte DBH ezartzeko, teknologia, plastika, musika eta informatika gelak eta

zientzia eta argazki laboratoriorak ezarri baitituzte, kirol esparruez gain. Sukaldea eta jantokia ere ikastola berrian egongo dira aurrerantzean.

Trabak ugari izan dira ikastolarentzat sortu zenetik, baita gaur egun ere, baina Bideosoan euskarazko eta kalitatezko hezkuntza baten aldeko apustua egina dago.

Egun, 230 ikasle inguru biltzen ditu ikastolak, 45 Eskolaurrean, 110 Lehen Hezkuntzan eta 75 DBHko hiru kurtsoetan. Matrikularioaren zenbakirik ez eduki arren, jaiotze tasa jaitsi dela kontuan harturik, aurreko ikasturteko zenbakiei eustea lortu dute.

Baina erronkarik gogorrenari orain ekin dio Labiaga ikastolak. 14 urte beteta, OHoko zortzigarren maila bukatzean aldegiten zuten ikasleek. «Orain, zortzigarren maila bukatuta gurean jarraituko dute eta guretzat berria den esparru batean sartu gara. Hala ere, ilusioz eta gogoz ekin diogu apustuari», adierazi du Martiarenak. «Proiektu kurrikularrak prestatzen lan handia egin dugu, irakaslego lizentziatua erantsi dugu eta gure Hezkuntza proiektua indartu. Baina herrikoia izaten jarraituko du. Herriarentzat zabalik dago ikastola, nahi duen guztiarentzat, kultur taldeentzat...».

Astehenean martxan jarri zen ikastolaren egoitza berrian Eskolaurreko eta Lehen Hezkuntzako ikasleak ariko dira

* ◆ Jose Ramon Anda ◆ Eskultorea

«Artisautza gaurkotu egin behar dugu, tradizioetik abiatuta»

Nafarroako Gobernuak Industria, Merkataritza eta Turismo Departamentuak antolatu Artisautza eta Diseinuko XIII. lehiaketa Jose Ramon Anda bakaikuarrak irabazi du aurten. Epaimahaiak joan den asteko ostegunean plazaratu zuen bere erabakia. Ez da Andak irabazten duen lehen aldia, gainera, hainbat alditan parte hartu eta eskuratu baitute saria Jose Ramon Andak eta bere anai-arrebek. Bere lanari eta artisautzak egun duen egoerari buruz mintzatu da gurekin bakaikuarra.

Eduarne Elizondo / Iruñea

ALACENA obrarekin eskuratu du aurtengo saria Jose Ramon Andak. Berak diseinatu du eta bere anai-arrebek egin dute. Beste askotan bezala, taldea osatu dute Andatarrek aitzak erakutsitako ofizioari eusteko.

■ Zuen lanaren soiltasun eta sinpletasuna azpimarratu du aurtengo lehiaketako epaimahaiak.

Horixe zen, hain zuzen, gure lanaren bidez azpimarratu nahi genuena. Tradizioetik abiatuta, hain altzari zaharra den ontzitegia gaurkotu egin dugu, gaur egungo beharretara egokituz. Hau da, obra soila da eta beste garaietako ontzitegiek betetzen zuten funtzio bera betetzen du honek ere, baina, era berean, arina da. Zerbait funtzionala egin behar genuela argi eta garbi genuen eta, hori dela eta, atal ezberdinetan zatika daiteke edozein lekura eraman ahal izateko, nahi izanez gero. Funtzionaltasunaren arlo hori ere azpimarratu zuen lehiaketako epaimahaiak bere erabakia jakinarazi zuenean.

■ Gaurkotasuna aipatu duzu. Hori da artisautzari zuk eman nahi diozun ukitua?

Arti' uek, oro har, ikuspuntu erakargarri eta kontserbadoretik begiratzen dute arti-


sautza, hala ulertzen dute, hitz hauen zentzurik okerrean gainera. Beti iraganari begira egiten dute lan. Artisautza mota hori niri ez zait batere interesatzen, are gehiago, guztiz aurka nago. Noski, tradizioak oinarria izan behar du, baina artisautza gaurkotu egin behar da, gaur egun dauden beharrei so eginez, bide berriak zabaldu eta ez atzera begira bizi.

■ Irabazi berri duzun bezalako lehiaketek zuk aldarrikatzen dituzun bide berri horiek jorratzeko balio dutela uste duzu?

Nik uste dut baietz. Izan ere, lehiaketak berak artisautza garaikidea egiteko aukera proposatzen du, funtzionala. Horrek ez du erran nahi, hala ere, erabateko aldaketa egin behar denik, jakin baitakigu aurrekoa dela gaurko oinarria. Artisautza garai berrietara egokitu besterik ez da egin behar.

■ Eta aldaketa hori gauzatzera ausartzen al dira artisauak?

Oro har, ez. Hala ere, horrek ez du erran nahi artisau guztiek euren lana berdin ulertzen dutenik; badira atzera begiratu beharrean aurrera begiratzen dutenak ere. Baina, oro har, benetako aberrazioak egiten dira gaur egun. Jendea ere nostalgik jota bizi da. Gai dira gurasoen etxeko altzari zaharrak botatzeko eta gero zahar itxura duen edo izan nahi duen altzaria erosteko. Bide be-



Nafarroako Gobernuak Artisautza eta Diseinuko XIII. lehiaketa irabazi du Andak.

EDUARNE KÖCH

rriak zabaldu behar dira, baina ez da erraza.

■ Gaurkotasuna zure lanaren oinarrietako bat bada ere, nabaria da zure aitaren lanak zuegan izan duen eragina, ezta?

Bai, noski. Aitzak erakutsi zidan ofizioa. Zurgin aparta zen bera. 20ko hamarkadan Bartzelonan ikasi zuen ofizioa berak eta han bertan tailer txiki bat izan zuen gerra piztu zen arte. Bakaikura itzuli behar izan zuen orduan. Berak egiten zituen altzari zoragarri eta ederrak ikusita, txiki-

tandik izan dut nik argi aita bezalakoa izan nahi nuela nik. Nire anai-arrebek ere berarengandik ikasi dute lanbidea. Nik, ondoren, eskultura deskubritu nuen eta zaletasuna piztu zitzaidan. Herri-atera eta Madrilera abiatu nintzen bertan Arte Ederrak ikastera. Beraz, ni eskultorea naiz, eskultura jorratzen dut batez ere. Hala ere, aitaren tradizioa ere ageri da nire lanean eta baditut eskulturaren eta altzariaren bitarteko bidean dauden lanak ere. Lan horien bidez, hain zuzen, no-

s o s l a i a

Bakaiku eta Donostiaren artean bizi da Jose Ramon Anda eskultore bakaikuarra. Pozik da Bitori, Fermín eta Maite anai-arrebekin batera lortu berri duen sariarekin. Nafarroako Gobernuak antolatzen duen Artisautza eta Diseinu lehiaketako lehen saria eskuratu duen laugarren aldia da, eta hirugarrena ere lortu izan dute aurreko urteetan.

Domingo Anda aitaren eskutik ikasi zuen Jose Ramon Andak zura lantzen, Madrilera Arte Ederrak ikastera abiatu aurretik. Eskulturaren espezializatu zen bertan. Aitaren eragina nabaria da bere bide propioa jarraitu eta jorratu nahi duen eskultore honengan.

Bere lana, askotan, eskulturaren eta altzariaren arteko bidean mugitzen da, bere aitaren omenez, Bakaikuko artistak azpimarratu duenez. Baina ororen gainetik aldarrikatzen duen eta artisautzak behar duen gaurkotasunari eta funtzionaltasunari uko egin gabe.

labaiteko omenaldia egin nahi diot aita zenari, Domingo Andari.

■ Aitzak bezala, zura al da zuk nahiago duzun materiala?

Bai, zalanztarik gabe. Beste batzuk erabili izan ditut noizean behin, baina zura da gehien erabiltzen dudana. Eta ez da harritzekoa, zura baita beti etxean ikusi izan dudana eta aitzak erakutsi didana. Beraz, zurari erabat lotua nagoela erran daiteke, harreman estua daukat zurarekin. Askok gustatzen zait zurarekin lan egitea.

«Gaur egungo artisautza erabat tradizionala eta kontserbadorea da, hitz hauen zentzurik okerrean»

P A N E
LUCRANDOLIRIKAZ
HONATAGO
-28-

GAUR:



Lady Gregory

Ez da deus ere ortzearen azpian irlandar herriaren aldekorik itxasoa eta haizea salbu...



Eta bada arrazoi bat biak aldekorat ukateko: hazi egiten bait dugu itxasoa gure malkoez eta, halaber, haizea gure hasperenez.

ZALDI EROA